

***KONTU-KONTARI*****XIBEROKO JAUNA PASTORALA**

Uztaileko azken igandean izaten da urtero pastoralaren lehen emanaldia, agorrileko lehen igandean, berriz, ohiko bigarrena. Ni, normalean, emazte eta bi semeekin batera, lehen emanaldira joaten ohi naiz. Aurten, bizitzaren gorabeherak di-rela eta, familiarekin joan beharrean bi lagunekin joan naiz. Eta horrela, uztailaren hogeita zazpian, igandearekin, goizeko zortzietarako Iñaki Martiartu eta Ander Ros bizkaitarrak Urruñako gure etxera iritsi ziren nire bila. Ia bi orduko bidea egin ondoren, hamarrak laurden gutxirako Ezpeizeko eliza aitzinera aile-gatu ginen. Ordurako, aldarea lorez eta haritz adaxkez apainduriko elizako ate aurrean eta zabalgunea betez ezarria zuten. Bertan baziren zurezko berrehun bat eserleku jarririk, gu iritsi ginenerako den-denak okupaturik zeudenak. Alboetan ere, bazen jende aunitz, zutunik. Azken horien artean kokatu ginen gu. Mauleko erretore den Jano Etxeto izan zen meza-emaile eta Muskildiko apeza den Argindegi jauna meza-laguntzaile.

Zuberoako ekiak indar handiz berotzen zituen Ezpeizeko bazterrak, eta bertan zeuden gehienen adin handia kontuan harturik, Etxeto erretore jauna prestatu-rik meza laburtzen ahalegindu zen. Zinez ederra eta hunkigarria izan zen niretzat eguzki galdatan osoki xiberotarrez<sup>1</sup> emandako meza hura.

---

<sup>1</sup> Xiberotarrez: Zubereraz.

Etxeto erretoreak euskararekiko, pastoralarekiko eta Euskal Herriarekiko aipua etengabe errepikatu zituen. Hasierako lehen kantuan pastorala zela eta, bere bozkarioa azaldu zuen:

- *Egünko besta handi eta eder huntan,  
oi zer boztariua gure bihotzetan!  
dügün orok batian kbanta lorietan  
Jesüs dela laidatü menteren mentetan.*

Eta geroxeago *Jauna orbit zite zuiñ gütützün maite* izeneko kantuan honako mezua aldarrikatu:

- *Zunbaiten ülbün die, ikusten gerua,  
erranez: lurralde hau itzaltzera dua.  
Ez hunbart bolakorik, zük otboi Jinkua,  
gora ezar ezazü gure Xiberua.*
- *Lau herri bat eginik<sup>2</sup>, bildü giea heben,  
pastorala kantatüz entzüle hanitxen.  
Gure batrarzün hori ezta deseginen,  
zelüko Aita hona badügü sinesten.*

Mezan zehar emakume bat seko erori zen lurrera, eguzki kolpeak eraginda. Hala eta guztiz ere, gainerako guztiek debozio handiz kantatuz eta otoitz eginez jarraitu zuten, bat ere mugitu gabe, meza bukatu arte. Elizkizuna amaitu orduko, al-dare aurreko lehen aulkietan eserita zeuden pastoraleko arizaleak<sup>3</sup> jaiki eta oinez Ündüreinen ezarririk zeukaten oholtzarai-

---

<sup>2</sup> 2008ko pastorala, hau da, Jean-Louis Davantek idatziriko *Xiberoko Jauna*, jokatu zuten lau herriak aipatzen ditu: Ainharbe, Ezpeize-Ündüreine, Sarriko-tapea eta Ürrüstoi-Larrabile.

<sup>3</sup> Arizaleak: Pastoralean parte hartzen duten aktoreak.

noko bideari ekin zioten. Honi *karrika üngürüa* deitzen diote. Buruan Jean Fabian Letxardoi *errejenta*<sup>4</sup> ospetsua zihoazen. Ondoren, zaldi batek tiraturiko orga batean, *süjeta*<sup>5</sup> (Allande Davant, Jean Louis Davanten iloba), süjetaren ama (Maritxu Galant-Davant, aurrekoaren arreba) eta Jean Louis Davant pastoral-egilea zihoazen. Denok ezagutzen dugu Davant idazlea, euskaltzaina eta pastoral-egilea. Bereak dira orain arte jokatu diren honako pastoralak:

- |                                 |                                 |
|---------------------------------|---------------------------------|
| – <i>Abadia-Ürrüstoi</i>        | <i>Mauleko ikastola (1990)</i>  |
| – <i>Eüskaldünak iraultzan.</i> | <i>Gotaine (1993)</i>           |
| – <i>Agirre presidenta.</i>     | <i>Arrokiaga (1995)</i>         |
| – <i>Xiberoko makia</i>         | <i>Sohüta (2001)</i>            |
| – <i>Xiberoko Jauna</i>         | <i>Ezpeize-Ündüreine (2008)</i> |

Pastoral-egilea badugu ere, esan beharra daukagu orain arte ez dela inoiz arizale gisa aritu. Aurten, lehen aldiz, arizale ukan dugu Ezpeize-Ündüreineko pastorean Xiberoko Anizet sindikoaren papera antzetzuz.

Aipatutakoen gibeletik gainerako arizaleak zihoazen, guztiak bi lerrotan, batean giristinoak eta türkak bestean. Hala nola: aingürüak, apezak eta apezküpüa, satanak, Nafarroako erege-erreginak, buruzagi türkak... Bukaera aldean musikariak eta dozena erdi artzainek gidaturiko artaldea eta ohiko astoa. Denetara ehun eta hogeitaz arizale. Horietatik laurogeita hamazazpi heldu eta hogeita sei haur. Koloretsua eta zaratatsua. Bide bazterrak betetzen zituzten ikusleek gogo handiz animatzen zituzten. Hamabiak aldera, Ündüreinerira iritsi ziren. Han, ordu-rako bazen jendetza handia. Asko aparkaturiko autoen artean bazkaltzen hasita zeuden. Triateren<sup>6</sup> aurrean mutxikoak eta

<sup>4</sup> Errejenta: Pastoral zuzentzen duena.

<sup>5</sup> Süjeta: Pastoral baten pertsonaia nagusia.

<sup>6</sup> Triate: Pastoral jokatzeko den taula edo oholta.

aintzina-pika dantzatu ondoren, arizaleek aldamenean ezarrita zuten xapito<sup>7</sup> handiaren azpian bazkaldu zuten. Huraxe izaten da aukera polita lagun zaharrak agurtzeko edota kantu batzuk abesteko. Guk ere, aukera ederki probestu genuen. Lagun artean, kantuan ginela baziren gurekin batera bospasei zuberotar eta bizpahiru manex<sup>8</sup> Kantu eta zurruten artean beti izaten da aukera hitz egiteko eta irri zenbait egiteko. Horretan ari ginela, zuberotar haietako batek ohikoa den ateraldia bota zien lagun manexei: *Manexetik ez aide bonik eta ez jente bonik*. Eta baxenafar batek, irri artean, honela erantzun: *Xiberotarrak zangoa arin eta burua berdin*.

Gero, bazkari azkarra egin genuen motxiletan eramandakoz, eta ordu bi eta erdirako harmailetara sartu ginen toki egokien bila. Sartu ginenerako aski beteta bazen ere, leku ona topatu genuen oholtzaren aurreko aldean, goi aldeko azken leerroan, Euskal Telebistako kamera-gizonaren ondoan.

Arratsaldeko hiru eta erdietan, puntu-puntu, agindua zen bezalaxe, hasiera eman zioten pastoralari. Arizale guztiak triate edo taulara igo ziren pastoralaren martxa doinuaz eta makilen erritmoari jarraiki. Haien jantzi eder eta koloretsuek bazterraz zipriztindu zituzten. Triatea ohiko modura apaindurik zeukaten hiru ateaq estaltzen zituzten oihal urdin, zuri eta gorriez. Oihaltan lorez egindako lauburuak ikus zitezkeen. Musikariak aterpetzen zituen etxolan euskal ikurrina eta Xiberokoa haizearen kulunkan ziren. Ate gorriaren gainean zurezko deabrua zen dantzari.

Harmailak gainezkatzen zituzten hiru mila bostehun ikusentzuleek, zutiturik, esku sarta beroaz hartu zituzten. Giroa pilpilean zegoen. Eta berehalaxe, arizaleek lehen perediküari ekin zioten

<sup>7</sup> Xapito: Toldoa, estalpea.

<sup>8</sup> Manex: Zuberotarrek Iparraldeko beste euskaldunei, lapurtarrei eta baxenafarrei alegia, ematen dieten goitizena.

- *Agur, agur, jente bonak  
xabarrak ala gazteak,  
algarrekila jarriak,  
eüskaldün ala besteak.*
- *Istoria bat entzün arren,  
segür inganagarria,<sup>9</sup>  
eta geroari bürüz  
agian argigarria.*
- *Oier hirugerrena zen  
Xiberoko azken jauna,  
bizkonde kargüarekin  
Mauleko gaztelüzaina.*

Lehen perediküan, ohitura den bezala, pastoral idazleak pastoralaren nondik-norakoa laburbiltzen du aurkezpen gisa. Jean Louis Davantek idatziriko bere azken pastoral honetan Mauleko jauna eta Zuberoako azken bizkonde izan zen Oier III.aren bizitza antzezten da. Pertsonaia historiko hau XIII. eta XIV. mendeen artean bizi izan zen, gudu aunitzetan parte hartu zuen eta beti, Zuberoaren eta Nafarroako Erresumaren alde borrokatu zen. Atharratze eta Etxarri-Aranatz hirien sorreran parte hartu zuen, Nafarroako Gobernuaren partaide izan zen Iruñean, eta bai bera eta bai bere ondorengo primuek nafar armadako buruzagi izan ziren. Laurogei urte zituelarik hil zen Iruñean. Bere ondorengo bat hil zen, buruzagi kargu honetan, Noaingo gatazkan espainiarren inbasioaren aurka borrokatuz.

Eguraldi ederra lagun, arizaleek pittaka-pittaka hiru ordu eta erdi iraun zuen pastorala jokatu zuten. Ikus-entzuleek izugarri gozatu zuten bai kontakizunaz eta bai dantza eta kantuez ere; eta ikusleek arizaleekin batera, ahapetik kantu egin zuten *Prima eijerra, Jaun Barua, Artzainen kanthorea* eta hiru alditan entzun zen *Nafarroako ereserkia*. Oier III.a hil zelarik arizaleek

---

<sup>9</sup> Inganagarri: Dibertigarria zubereraz.

eta publikoak batera, *Agur Xiberoa* hunkigarria abestu zuten. Azken perdikiaren ondotik, azken kanthorea<sup>10</sup> etorri zen:

*ENE HERRIA*

- 1.- *Ene herria miresten zütüt haur denborako begiez.  
Andere handi zira beztitü dentela fizko begiez,  
zaia zolata heltzen nitzaizüdoi-doia nizan pettarra.  
Hatik eskütik etxeki naizü, eta zütan dit indarra  
eta zütan dit indarra.*
- 2.- *Azkorri oroz leihoan zütüt, oi Otsogorri Handia,  
pixtan behera ikusten deizüt erria edo nigarra.  
Eta ibarra junpatzen beitü zure kantore zilarrak,  
ama hoberik asma deitea, ene Xibero maitea?  
ene Xibero maitea?*
- 3.- *Ene leibotik ageri düzü beste mendirik balere  
Ortzanzurieta, Beltxü, Iparla, Urtsuia eta Baigura.  
Ene Herria, ez otoi bekaitx, Herria düit hura ere.  
Ene Herria, ez otoi bekaitx, Herria düit hura ere,  
Herria düit hura ere.*
- 4.- *Oi sorterrria, zure leküa bester ützi ez düit gura.  
Ama bat bera, eta zü zira, Xibero ana haütüa.  
Eüskal Herria berriz güzia maite düdan etxaltea,  
Eüskal Herria berriz güzia maite düdan etxaltea,  
maite düdan etxaltea.*

*Hitzak eta soinua: Jean Louis Davant*

Gero gerokoak edo hobeto esanda, pastoral guztietan amaiera aldean diren antxerak edo enkanteak. Antxeretan lehiatzen diren herriek oholtza gainean muñeiñak dantzatzeko

<sup>10</sup> Kanthore: Kantua zubereraz.

eskubidea lortu nahi dute, horretarako dirua emanaz. Hori dela eta, hor aritu ziren norgehiagoka sosak eskainiz. Azkenean, Maulek irabazi zuen mila eta bostehun euroko kopurura iritsita. Ixtantean, oholtza mauletarez bete zen. Soinua hastean jauzkari eta alai dantza egiteari lotu zitzaizkion.

Gure ondoan eserita Jose Luis Aperribai apaizaz eta Aita Goena, Txema Auzmendi eta Tuterako seme den Koldo Katxo josulagunez ostutako lagun koadrila zegoen. Lehena aspaldiko adiskidea nuen. Pastorelean zehar, gure arteko adiskidetasuna landua genuen eta hura amaitzean ardo baso bana eskaini ziguten. Pastoral leku aproposa izaten da garai bateko adiskidetasunak indartzeko edota berriak pizteko. Aldamenean paratzen duten kantina edo ostatua izaten da horretarako azken geltokia, pastoral urrentu<sup>11</sup> ondoren, jendea bertara hurbiltzen baita gose-egarria asetzeraz eta asko eta asko hor izaten dira kantu-kantari gaueko ordu ttikiak iritsi bitarte.

Zuberotar ez ginenok lehenago egin genuen alde, prefosta! Itzulbidea egin beharra zegoen-eta.

Pastoral maite dugunontzat guzti-guztiak dira ederrak, ez baita gaia bakarrik, baizik eta bere inguruan pizten den giroa eta baita gauzatzen diren beste ekitaldi guztiak ere. Nik nire burua pastoral zaletzat hartzen dudanez gero, ezin dut esan hau ona eta beste hobea izan direnik, guztiez arunt gozatzen baitut. Jean Louis Davanten pastoralak zinez maite ditut, eta guztiek lilura sortu dute nigan. Hala eta guztiz ere, aurtengoa berezi samarra iruditu zait, bai gaiaren aldetik, bai kobla eta kantuen aldetik, eta baita antolakuntzaren aldetik ere. Harribitxia izan dela esanen nuke nik, are gehiago, Jean Louis Davant pastoral-egilearen eta Jean Fabian Letxardoi errejentaren maisu-lana, perfekziotik arras hurbil ibili den pastoral.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*

---

<sup>11</sup> Urrentu: Bukatu, amaitu.